

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
04. Euskara, Kultura eta Kirola 04. Euskera, <i>Cultura y Deporte</i>	05. Kultur Ekintza 05. <i>Acción Cultural</i>	232.111 Gizarte-hezkuntzako Ekipamenduak eta Programak 232.111 <i>Equipamientos y Programas Socioeducativos</i>

Gastu egitarau honen bitartez, berariaz ume eta gazteentzat izango diren gizarte eta hezkuntza zerbitzuen, ekipamenduen, jardueren eta programen eskaintza sustatuko da. Horren guztiaren helburua gazteen garapen soziala eta kulturala lortzea da, hala maila indibidualean nola talde mailan, batez ere euren ekimenak eta sorkuntzarako gaitasuna bultzatuz, euren parte hartzeko aisialdia bideratuz eta ondasun eta zerbitzuetara iristeko aukera emanaz.

Kontuan hartuta gastuen arloko egitarau honek pertsona gazteen aisialdi eta astialdiaren aprobetxamendua eta gozamina bideratzeko gizarte eta hezkuntza programak eta zerbitzuak indartu eta bultzatu nahi dituela, hau da, ezaugarri horiek pertsona gazteen garapen integralaren faktore izateagatik, ume eta gazteen taldeentzako, adibidez Udalekuak, izango diren egitarauen antolakuntzari ekingo zaio beti ere adin tarteen arabera egon dauden beharrian eta ezaugarriak kontuan hartuta. Aldi berean, egitarau horretan gizarte mailan kaltetuenak diren gizarteko kolektiboek eta beharrian bereziak dituztenek parte hartzeko bideak ezarriko dira.

Horrezaz gainera, aisialdia, astialdiko balioetan oinarriturik dagoen hezkuntza eta genero-berdintasuna sustatzen dituzten programak, proiektuak eta jarduerak antolatu eta garatzea sustatuko da.

Era berean, foru eskumenak baliatzen jarraituko da hezitzaileak prestatzeko eskolek aisialdiaren arloan egiten duten lanari dagokionez.

Mediante este Programa de Gasto se fomentará la oferta de servicios, equipamientos, actividades y programas socioeducativos dirigidos específicamente a la población infanto juvenil, al objeto de propiciar su desarrollo social y cultural, tanto a nivel individual como grupal, principalmente mediante el impulso de su iniciativa y creatividad, la movilidad, y el ocio participativo y el acceso a bienes y servicios.

Dado que en este programa de gasto se pretende impulsar y promocionar los programas y servicios socioeducativos que posibiliten el aprovechamiento y disfrute del ocio y el tiempo libre como factor de desarrollo integral de las personas jóvenes, se procederá a realizar la organización de programas dirigidos a colectivos infanto-juveniles, como Udalekuak, atendiendo a las necesidades y características propias en función de distintas franjas de edad, al tiempo que se favorecerá la participación en este programa de aquellos colectivos sociales más desfavorecidos y con necesidades especiales.

Además, se fomentará la organización y el desarrollo de programas, proyectos y actividades que potencien el ocio recreativo, la educación en valores del tiempo libre y la igualdad en materia de género.

Así mismo, se continuarán ejerciendo las competencias forales en lo relativo a la labor de las Escuelas de Formación de Educadoras y Educadores en materia de tiempo libre.



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
04. Euskara, Kultura eta Kirola 04. Euskera, <i>Cultura y Deporte</i>	05. Kultur Ekintza 05. <i>Acción Cultural</i>	232.111 Gizarte-hezkuntzako Ekipamenduak eta Programak 232.111 <i>Equipamientos y Programas Socioeducativos</i>

Foru jabetzakoak diren ekipamenduen sareari dagokionez, hau da, proiektu eta jarduera sozioedukatioak burutzeko erabiltzen direnak eta baita mugikortasunerako, kultur elkartrukaketetarako eta elkartegintzarako direnak ere, esan behar da horien mantenu egokiarekin jarraituko dela, zertarako-eta instalazioen kalitatea eta erosotasuna hobetzeko eta horien kontserbazio egokia bermatzeko. Beste alde batetik, haien funtzionamendu egokia lortzeko beharrezkoak diren elementuak eskuratzea eta birjartzea ezartzen da.

En cuanto a la red de equipamientos, de propiedad foral, utilizados para la realización de proyectos y actividades socioeducativas, así como para la movilidad, el intercambio cultural y el fomento del asociacionismo, se continuará con su adecuado mantenimiento, de cara a mejorar la calidad y confort de las instalaciones y garantizar una adecuada conservación de las mismas. Por otra parte, se contempla la adquisición y reposición de los elementos necesarios para su correcto funcionamiento